



piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 70. alea 2003ko maiatzaren 30a

# XXXIII Euskal jaia

Ikusi

Ikasi

Dantzatu


Gozatu

Gure jaixa Guria

Euskal jaixa

Egunkaria  
aurrerat!

berria berri





Tornileria-estanzazioa  
eta  
extruzioa hotzean

# GOL

GOL industriak S.A.  
Sagar Erreka, 19 45 PK  
Telefona: 34 943 75 21 00  
Faxa: 34 943 75 17 12  
20590 SORALUZE

## Iragarlearen txokoan: Txoko Taberna

Kalebarren 22 behea / Telefonoa 943 75 17 89

*Kafiak ta pintxuak dira gure  
espezialidadiak*

**Noiz ta zelan zabaldu zenduten kafetegixa?**  
1997ko irailan 6xan zabaldu genduan, lehenao be  
taberna bat zeukagun Zaldibarren.  
**Zenbatak eitten dozue lan hemen?**  
8 pertsonak, jabiak barne.



**Ze zerbitzu eskaintzen ditzuzue?**  
Barriaz aparte,  
asteburuetan plater  
konbinatu ta  
bokadiluak be  
eukitzen dittugu.  
**Zein ordutan  
eukitzen dozue  
jende gehixen?**  
Astian zihar  
goizetan, jendia  
kafia hartzera  
etortzen da ta.  
Asteburuetan,  
goieko ta  
arratzaldeko  
txikiteua dira jende  
gehixen dabilen  
momentuak.



**Espezialidaderen bat...**

Kafiak ta pintxuak dira gure espezialidadiak.  
**Errealeko peña be Txokua dauka sedetzat, zelan ba?**  
Soraluzeko Txuri-urdirak taldeko zuzendaritzakuak  
guregana etorri ziran ta kafetegixa sede bezela  
erabiltzia proposatu zozkuen.  
**Amaitzeko, gustora al zauzie Soraluzen?**  
Bai, oso gustora. Jentia oso jarrera ona euki dau  
gurekin ta laguntza haundixa emon dozkie hasieratik.



## Pil-pilean, herri aldizkari serio bakarra

GORKA PRIETO

Bukatu da bozketa garaia. Denetarik gertatu da; herri talde eta partiduen ilegalizazioa, bozka txuriak eta beste gora-behera ulertezin ugari (ez al dute galiziarrek nahikoa izan orain gutxi? Eta ez al zuten PPre kontrako kexa ugari egin? Zergatik aukeratu dituzte berriro? Bakoitzak merezi duena izaten du nomalean...). Baina ez diot honi buelta gehiagi emango.

Benetako aztergaia honakoa da; orain dela 4 urte Soraluze izandako hauteskunde munizipalen ostean sortu zen Udalak 'Soraluze Udala' aldizkaria ateratzea erabaki zuen 3 hilabete behin. Orain, legealdiaren bukeran eta udaletxeko zinegotzien aldatzarekin bat bukatutzat eman dute proiektua. Ez da serioa. Beraien arabera, aldizkari hori 'herrian zegoen hutsune informatiboa betetzeko' izan zen sortua. Orduan bertan, orain 4 urte, Pil Pileanek agertu zuen bere ezadostasuna aldizkari horrekin. Alperrik izan zen.

Orain ikusi da ostera, hura dena gezurra zela. Aldizkari hark ez zuen inongo hutsune informatiborik betet-

zeko helbururik. Akaso ez al dago orain ere orduan zegoen hutsune informatiboa ala? Lotsagarria.

Orain geratu da demostraturik aldizkari hura propaganda hutsa zela, hasiera hasieratik herritar askok salatu genuen bezala. Nork daki (norbaitek jakingo du Udaletxean) zenbat eta zenbat diru erabili den aldizkari hori argitaratzen. Ulertezina bait da, herrian denona den herri aldizkari bat egonik nola ez zen Pil Pileanekin hitzegin eta balizko hutsune informatibo hori kolaborazioaren bidetik bete. Pil Pilean ez zen ezta kontsultatua ere izan...

Argi geratu da beraz, eta denborak arrazoia eman digu, 'Soraluze Udala' zinegotziren baten kapritxoa besterik izan ez zela, herriak benetako aldizkari serio bat bazeukala kontuan hartu gabe, zinegotzi batek zinegotzi izan behar du eta ez kazetari, horretarako bait daude kazetariak.

Espero dezagun etorkizunean berriro horrelako hankasartzerik ez egitea eta denon arteko benetako elkarlana bultzatea guztien partetik.

### Telegrapak

Zenbat denbora ahorik zabaldu barik. Stop. Txuri-uridinak peñarekin gelditu ginan aho zabalik. Stop. 200 bazkidezik gora. Stop. Karpin ekarri eta herrixa hankaz gora. Stop. bapatian dana da futbola. Stop. zu, ni, danok gara futbola. Stop. mundua futbola da. Stop. futbola mundua da! Stop. da mundua futbola?. Stop. Egunkarixan aurkezpena be egin zan. Stop. hontan jende gutxitxua egon zan. Stop. eske politika kontuak... Stop. nun dago Donostiako manifiñan izan zan jente pilia?. Stop. Donostiatik danok bueltatu ginan ezta?. Stop. Pasatu dira hauteskundeak be. Stop. hortan jentia parte hartu dau. Stop. danak esaten dogu ezetz baina. Stop. azkenian baietz da!. Stop. Soraluze ez da ezer asko aldatu. Stop. gaitzerdi. Stop. beste herri batzuetan dagan panoramia ikusitta. Stop. Eta irrati emisora barrixana?. Stop. tope guay ti@!. Stop. super euskalduna!. Stop. nuestro, nuestro!. Stop. 97.6xan dago. Stop. entzun egin biharko dogu ezta?. Stop. the best music!. Stop. Sabina antikomertziala be bai, kontxo!. STOP."aver Joaquin, que esta pachucho, aver si nos recuperamos eh!". Stop. aurrera, aurrera bolie!. Stop. Hurrengo alerarte. Stop. muxu mingainbe wat!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkartea

Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.

Telefonoa 943 75 13 04

comunidades.kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU  
pilpilean@euskalnet.net

**Erredakzio burua:** Egoitz Unamuno

**Erredaktoreak:** Gurutze Ariznabarreta, Enara Agirre, Eguzkine Aldazabal, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar, Egoitz Unamuno eta Arienne Unamuno.

**Publizitatea:** Ane Yabar (943 75 13 04)

**Logotioa:** Jon Gabilondo (943751304 tel.)

**Banaketa:** Pil-pilean **ekoizpena:** 1.850 ale

**Inprimategia:** Gertu Koop. **Azala:** Pablo Galarraga

**Diseinua eta Maketazioa:** Aitor Madrid

**I.Z.K.-a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZEKO  
UDALA



EUSKO  
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA

### Erreportaia

2003koa, XXXIII.a, aurtengo Euskal Jaia ezberdina eta berezia izango da. Hitzaldia, kantu afaria, baserri ekologikora irteera, Egunkariaren aldeko informazio eta diru bilketa kanpaina...



## Zorion agurrak



**Ibai Kortabarría**  
Maiatzaren 31a  
8 urte  
Ondo pasau zure eguna.  
Zure gurasoak eta Naiararen partez.



**Maria Azkona**  
Ekainaren 2a  
21 urte  
Ua, ua, ua! epa, epa, epa! basetxera eh!  
Eta Pil-pileanera? Zorionak errubia!  
Pil-pileanekuk!



**Arnaitz Cifuentes**  
Ekainaren 7a  
10 urte  
Zorionak eta urte askotarako!!  
Santa Anako familixaren partez.



**Ana Gil**  
Ekainaren 2an  
Zorionak eta patxo haundi bat!  
Familixarkuen partez.

**Mikel Juaristi**

Maiatzaren 26an  
Zorionak! eta ondo zaindu belarrixak!  
Onar eta etxekuen partez.



**Gorka Santamaria**  
Maiatzaren 11a  
Ezin geldu egon!  
Gaixtua haiz eh!  
Muxu haundi bat.  
Zure gurasoak maiztasun haundiz!



**Ane Larreategi**  
Ekainaren 7a  
20 urte  
Zorionak urrezko kizkurtxo!!!  
Ia ba noiz botatzen dogun parranda on bat.  
Kuadrilakoen partez.

## Agenda

## MOTORZALEEN TOPAKETA

Ekainaren 7an

Plaentxi Motoclub Taldea

TERE GUENETXEA  
"URALDE"Keramikako Erakusketa  
2003ko ekainaren 6tik 15era  
Astegunetan 19etatik 21etara  
Larunbat eta jai-egunetan

## EZOZIKO JAIK

- Ekainaren 13an Rock Jaialdia (Segaba Thor)
- Ekainaren 14an Mus eta Truk Txapelketa, Bola Txapelketa, Herri Afaria (sarrerak salgai tabernetan), Dantzaldia.
- Ekainaren 15ean Meza, Herri Kiroiak, Finalista sariak, Herri bazkaria (sarrerak salgai tabernetan), Zezenak eta poniak.

## IPIIN LEHIAKETA

Lanak aurkezteko epea zabalik-  
Ekainaren 8a aurretik Udaletxean entregatu behar dira.

hildakuak

Perpetua Ramos

## Merkatu Txikia



## LAN ESKAINTZAK

\*Elgoibarko gazte informazio gunean lan egiteko langilea behar da.

Curriculumak entregatzeko: Elgoibarko Izarra Kultura Elkarte, Ubitarte 4 behea 20870 Elgoibar. Informazio gehiago 943 74 16 26 (Nerea)

\*Debabarreneko euskalgintzak proiektu berri baterako enpresa kudeatzailea behar du. Bidali curriculumak ekainaren 5erako. Pil-pilean Kultura Elkarte. 27. Postakutxa. E-posta: pilpilean@euskalnet.net.

\*GERENTEA behar du Aretxabaletako bihurtzea, S.A. Aretxabaletan enplegua sustatzeko eta etxebizitza, industria eta zerbitzuak jartzeko lurra kudeatzeko dagoen elkarte publikoak. Interesatuok bidali curriculumak Ordiziako (20240) 89 postakutxatilara, kartazalean 20/03 erreferentzia aipatuz.

## LANGAI

\*Bi erizain behar ditu. Durangoaldeko enpresak. Erref 102301/1

\*Hozkailu muntatzailea behar du. Durangoaldeko enpresak. Erref. 101555/4

\*Egokitua instalatzeko pertsona behar du. Debabarreneko enpresak aire. Erref. 97505/7

\*Peoia behar du Eibarko aldi baterako enpresak metalerako. Erref. 101753/3

\*Enpresaritzan lizentziatua behar du Debabarreneko aldi baterako enpresak. Erref. 101804/5  
Ondorengo lanpostuetan hautagai moduan sartzeari eskatu nahi baduzu: 901222901 telefonora deitu. (LANGAI)

**IRATXO GOXOTEGIA**

EGUNKARIA  
ETXERA ERAMATEN DIZUGU  
GEHIAGO ORDAINDU GABE

ETXABURUETA, 4  
20590 SORALUZE  
telefonoa: 943 75 13 20

**Limpiezas Trejo, S.L.**

Rekalde, 30 behea  
Tel.: 943 75 25 57  
Faxa: 943 75 25 56  
20.590 SORALUZE

**EDURTZA Kafetegia**  
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Eguneroko menua eta pintxoak

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

**Aras S.A.L.**

DIN arauak jarraituz eta zehaztasun handiz egindako torniluak

Industrialdea 20-21  
50 Posta Kutxatila

Tfnoa 943 75 17 36 - 75 18 03  
Faxa 943 75 22 95  
20590 Soraluze

Telefonoa 75 24 09

**ARRANO tabernia**

"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

**etxera**

## Zer irizten dotsazu?

*Egunkariko langileek Berria Berri diru bilketa kanpaina jarri dute martxan. Soraluzeko Herri Batzordeak herrian 12.000 euro batzeko helburua jarri du.*

# Herrian Egunkari berriaren alde 12.000 euro batzeko gauza izango garala uste dozu?



**Gonzalo Portu**  
46 urte  
Tornerua  
Informau naiz egunkarixa asuntuan inguruan. Diru asko dan arren batzia nahi dana, jentia ados dao horrekin, eta uste dot lortuko dala. Nik uste dot kontzertuak eta itxia ondo egongo litzakela.



**Josune Jauregi**  
21 urte  
Ikaslia  
Ez nao seguru lortuko dan horrenbeste diru, izan be diru asko da. Hala eta be, uste dot herrixan eskuetan dauala eta holako gauzak lortuko dittugula. Idea ona iruditzen jata dirua batzeko egun guztiko jaixa antolatzia herrixan.



**Rosa Mª Dueñas**  
37 urte  
Etxekoandria  
Jendian esku dau kopuru hortara iristia edo ez iristia, baina nik uste dot lortuko dala. Etxata idearik okurritzen ze gahixao egin leikian dirua lortzeko.



**Jabi Etxabe**  
43 urte  
Tornerua  
Jarraitu dot Egunkarixa itxi ze benetik ona izan dan prozesua eta pozten naiz berriz zabaldu bihar dala jakitzia. Nik uste dot lortuko dala diru kopuru hori, ze ineteresgarria da eta aurreara atara bihar da.



**Eneko Sodupe**  
16 urte  
Ikaslia  
Nik uste dot lortuko dala, izan be herrixa mobitzen da holako gauzetarako. Pentsatzen dot idea ona izango zala kontzertu batzuk egitia eta txosna batzuk jartzia dirua batzeko.



**Jose Arrua**  
32 urte  
Loteria saltzailia  
Diru asko da, eta eztaikit lortuko dan edo ez, baina oso zaila ikusten dot. Dirua biltzeko ona izango litzake kirolakin lotura daken ekintzak egitia, futbito partidotxuak, gaur egun horrek jende asko erakartzen dau.



Barra kargadore automatikoak  
eta makina bereziak

## ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa 943 75 18 91

Faxa 943 75 24 58

E - maila: [etxehun@teletel.es](mailto:etxehun@teletel.es)

[etxehun@euskaltel.net](mailto:etxehun@euskaltel.net)

20590 SORALUZE

Gipuzkoa



## Belarrak

### Loradenda eta belardenda

*Eroketak etxera  
eramango dizkizugu*

**Telf. 943 75 30 11**

# HIT Radiok Soraluzetik emititzen du Debabarrenerako



Hilabete inguru da, Espainia guztian zehar 30 emisora baino gehiago dituen HIT Formula irrati kateak, emisora bat zabaldu duela Soraluzen. Emisora Sagar Erreka auzoak dago, 1. atarian. Emisora honek Debabarrenerako programazio berezia emititzen du egunero, asteburuetan izan ezik. Asteburuetan bertatik egiten da irratiaren emisio orokorra. Soraluze eta Eibarko emisoretako zuzendaria den Jabier Izaga elgoibartarrak azaldu digunez, laster 6 langile izango dira Soraluzeko emisora eta horien artean kazetari soraluzetar bat ere izango da.

Emisora Soraluzen jartzeko arrazoi

nagusia, lokala eta herriko agintarien aldetik jaso duten harrera ona izan omen dira. “Udalak oso ondo hartu gaitu eta badakigu soraluzetarren artean entzule asko ditugula. Gu gure aldetik Soraluzeren izena zabaltzen saiatuko gara.”

Soraluzeko emisora F.M.ko 97,5 frekuentzian emititzen du eta “aktualitateko musika” da programazioaren ardatza. Jabier Izagaren esanetan, “astero zerrenda bat egiten da eta musika hori jartzen dugu. Diskografikek badute eragina, %30 inguruko konpromisoa dugu eurekin. Beste batzuek baino txikiagoa hala ere”.

## H.H.I.ko matrikulazioa zabalik

Soraluzeko Helduen Heziketa Ikastetxeak (E.P.A.)-k, maiatzaren 12tik ekainaren 4ra bitartean, datorren ikasturterako maila desberdinetan izena emateko aurre-matrikula epea zabalik dagoela jakinarazten du. Eskeintzen diren ikasketak honako hauek dira: Alfabetizazioa, Kultura Orokorra, atzerritarrendako eskolak, D.B.H. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Graduatua, Ingeles eta Euskara ikastaroak, 25etik gorakoendako Unibertsitateko Sarrera Frogarako prestakuntza eta Informatika Ikastaroak.

Ikasturte hauek dohainekoak izateaz gainera, ofizialak dira eta ikasturte



amaieran ziurtagiri ofiziala eskuratzen da. Aurtengo ikasturteko bigarren lauhilabeterako izena emateko, goizeko 9:30etatik 11:30etara edo 15:00etatik 19:00etara bitartean deitu edo urreratu liteke Baltegiako egoitzara.

## Ibaiko zikinkeria garbitzen



Joan zen astean, ibaiko zubietan pilatutako egur eta zikinkeriak garbitzen jardun dute Amitxastegi Iturgintza eta Udaleko langileek.



## VIDAL

### frutadenda

Etxaburueta 2  
Tel. 943752055

## CLINICA DENTAL

BERGARA

**ODONTOLOGIA** Helduendako eta Umeendako  
Hortz-protesia  
Implanteak  
Hortz-estetika

FINANTZAKETA PERTSONALIZATUA  
Aseguruak: Ipresa, Sanitas, DKV/Previa, Aegón, Guía Azul de la Salud, Dentired eta Aresa.

 Ebarrituendako Sarbidea
 

Bidekurutzeta, 36 bajo BERGARA TEL: 943 76 05 77



## PASCUAL CHURRUGA, s.a.

### Hotzian eta beruan jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461  
E-mail: [general@pascualchurruga.com](mailto:general@pascualchurruga.com)  
Errekalde 21 20590 SORALUZE



## MENDIZABAL

### OKINDEGIA

Kalebarren,10  
Telefonoa 943 75 20 91  
Baltegieta, 6  
Telefonoa 943 75 13 99  
SORALUZE

# EAJ-EA koalizioak gehiengo osoa lortu du 1.223 bozka jaso ostean

Maiatzaren 25eko hauteskundeetako emaitzen ez dute aldaketa garrantzitsurik ekarri Soraluzeko Udaleko indar korrelazioan. Daturik aipagarrienak EAJ-EA koalizioak lortu duen gehiengo osoa eta herri plataformak 1999ko hauteskundeetatik hona jasan duen jeitsiera lirake.

Datozen lau urteotan alkate izango den Alberto Sudupek azaldu digunez, "oso balorazio ona" egiten dute lortu dituzten emaitzen inguruan eta emaitza hauek "herriak" aurreko legealdian egindakoa babestu eta legealdi berrirako "indar barrixa" eman die. Honekin batera, "Udaleko gainontzeko indarrekin hitz egiteko prest" dagoela adierazi du Albertok, "guztien artean" legealdi berrirako funtzionamenturik egokiena adosteko ahalegina egin nahi duela ziurtatuz. Zinegotzien ardura eta batzorde banaketei dagokienez, ekainaren 14an alkatea izendatzeko egingo den ezohiko batzarraren osteko egunetan erabakiko direla jakinarazi zigen alkateak. Beraz, oraindik ez omen dago ezer erabakita eta ate guztiak zabalik omen



daude gainontzeko indarrekin adostasunak bilatzeko.

Askatasun Haizeak plataformak hauteskundeetan izan dituzten baldintzak kontuan hartuta, positiboki baloratzen dituzte emaitzak. Aurrera begira, "maiatzaren 25eko bozka guztiak errespetatzeko prest dagoen guztiarekin autodeterminazioaren bidean lan" egingo dutela jakinarazi digu.

Alderdi Sozialistak EAJ-EA koalizioa zoriondu nahi du eta 2. zinegotzia lortzetik 7bozkara gelditu zirela azpimarratu.

Alderdi Popularrak bere aldetik, soraluzetarrek "nahi izan duten alkatea" izango dutela eta oposizioan lan egiten jarraituko dutela adierazi digu.

## Soraluzeko Hauteskundeak 2003 emaitzak

	(3770 hautesle) botoak (3517 hautesle)		eserlekuak	
	1999 (Abs.%34)	2003 (Abs.%27)	1999	2003
EAJ-PNV	966 %36.84	-	5	-
EH	757/ 744 %28.87	-	3	-
PSE-EE/PSOE	370/ 347 %14.11	387/ 383 %15.19	1	1
PP	282/ 367 %10.76	287/ 334 %11.27	1	1
EA	247 %9.42	-		
EAJ-PNV / EA	1.114	1263/ 1137 %49.59	6	6
SAH AUB (B.G.)		590 471	3	3
ARALAR		126	Beltzez, Udalerako emaitzak azaltzen dira eta zeharkakoz Gipuzkoako Foru Aldundirakoak.	
EB/ IU Zuriak	38 - 60	77 25		

## Hautatutako Zinegotziak



Alberto Sudupe EAJ  
Alkatea




Oskar Gabilondo EAJ  
Alkatea ordea



Nerea Perez EA  
Zinegotzia



Mirari Olerza EAJ  
Zinegotzia



Iker Aldazabal EAJ  
Zinegotzia



Maite Oregi EAJ  
Zinegotzia



Jose L. Arizaga SAH  
Zinegotzia



Monika Muro SAH  
Zinegotzia



Jose A. Moro SAH  
Zinegotzia



Soledad Del Bosque  
PSE-EE  
Zinegotzia



Javier Nuñez  
PP  
Zinegotzia

**LAUDIN**  
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g      tf: 943752150  
138 Postakutxa      Faxa: 943752118

**SORALUZE**

**GILA TABERNA**

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta  
pintxo  
goxo goxuak !!



Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

# Ekainaren 7xan Euskal Jaixa

2003Koa, XXXIII.a, aurtengo Euskal Jaia ezberdina eta berezia izango da. Hitzaldia, kantu afaria, baserri ekologikora irteera, Egunkariaren aldeko informazio eta diru bilketa kanpaina... Eta ekainaren 7an, Euskal Jai Egunarekin, errematea. Aurten ez da inguruko herrietako dantzari gaztetxorik etorriko, ez, baina sagardoa izango da nahi beste eta Iruñatik Oberena dantza taldea etorriko da. Egun osoko jaiaren ostean erromeria eder batekin emango zaio hasiera zapatu gauari.

Euskal Jai Batzordeak eta Pil-pilean Kultura Elkartek, "egun bakarreko euskal jaia hazi" eta bi asteko egitaraua osatzea erabaki dute aurten. Euskal Jaia izatera zabaldu eta beste herri batzuetan egiten den moduan beste jardun kultural batzuekin aberastea da asmoa; **euskara, ahozko literatura, euskal historia, nekazaritza, Egunkari berria eta beste hainbat alor lantzeko aukera** emanaz. Euskal Jai Eguna larunbatera aldatzea berriz, data kontuekin izan diren arazo batzuen ondorioz etorri da.

*"Ekainaren 7an amanatxo,  
eta aittittaz jantzitta urtetzeko  
dei egin nahi dotsegu  
soraluzetar daneri. Jai egun  
edarra izango da"*



Egun guztian zehar Egunkari berriaren egitasmoari laguntzeko 5euroko errifak izango dira salgai. Egunkariko material eta akzioak saltzeko mahai ere, izango da.

## XXXIII. Euskal Jaiko Egitaraua

### MAIATZAREN 30EAN KANTU AFARIA

Ikastolako Frontoian. Domentxu Uzin eta Unai Larreategiren musikarekin herri-kantuak abestuko dituzte herriko taldeek.

EKAINAREN 1EAN  
**EIBARKO SOSOLA BASERRIRA** irteera. Nekazaritza ekologikoa ezagutzera (izena emateko 943 75 13 04ra deitu. 14 Plaza.).

### EKAINAREN 4AN EGUNKARIAREN BIDEOA

Gaztetxean. 19:30etan.

EKAINAREN 6AN  
22:30etan **"EUSKERAZ DIBERTITZEKO MANERAK"**  
Hitzaldia Udaletxean. Kike Amonnarriz eta Asisko Urmenetarekin.

EKAINAREN 7AN  
**EUSKAL JAI EGUNA**  
10:00etan Triki, txistu eta buruhandiak kalez kale.  
11:00etan Urrats dantza taldearen kalejira  
12:00etan **URRATS** dantza tal-

dearen alardea Plaza Berrian  
13:00ean Iruñako **OBERENA** dantza taldearen saioa.  
14:30etan Herri bazkaria Plaza Zaharrean  
17:00etan Errealeko beteranoen partidura Ezozira.  
18:30etatik aurrera, **SAGARDO DASTAKETA** Plaza Zaharrean  
19:00etan Imuntzo eta Belokirekin erromeria  
20:30etan **LARRAIN DANTZA** Plaza Zaharrean  
21:00etatik aurrera, erromeria.



## SAN ANDRES

Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak  
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea  
Tfnoa 943 75 16 46

**GAZTELUPE**  
taberna

tel: 943 75 20 81





Igandetik larunbaterako aldaketak, eragin handia izan du egitarauan eta aurten "dantzari txikien eguna izatetik, **Iruñeako Oberena nagusien dantza taldearen laguntza izango duen Euskal Jai Egun zabal eta partehartzaile bat antolatzea da asmoa**".

Beste urte batzuetan aurreko egunean egin izan den Sagardo Eguna ere egun berdinean egingo da aurten eta 6 sagardotegitako sagardoa izango da dastatzeko moduan. Eguerdian etxera

joan beharrik ez izateko, herri bazkaria egingo da Plaza Zaharrean. **Bazkaria eta sagardo banaketa antolatzeko herriko hainbat kuadrilaren laguntza izango da.** Arratsaldean "Imuntzo eta Beloki trikitilari taldearen laguntza erromeri eta dantza giroa piztea izango da helburua". Eguraldiak laguntzen badu ekitaldi gehienak Plaza Zaharrean egingo dira baina euria egin ezker, Ikastolako edo Kiroldegiko Frontoira aldatuko dira ekitaldiak.



## Urrats Dantza Taldearen Biziberritzea

**2003. Urtea, biziberritze urtea izan da Urrats Dantza Taldearendako. Azken urteotan izan den dantzari gaztetxoaren urritasunari buelta eman**

**eta gaztetxoak dantza taldera hurbiltzea lortu dute. 40 Neska eta mutiko inguru daude talde ezberdinetan eta igande honetatik aurrera ekingo**

**diote inguruko herrietako euskal jaietan parte hartzeari. Dantza taldearen atea zabalik daude batez ere nagusientzat, animatu eta hurbildu.**



**Nagusien taldean neska eta mutil gazteak falta dira taldeak behar bezela osatzeko. Mutiletan 8 badaude baina nesketan ez dira iristen.**



**Mutil gaztetxoaren taldea ongi osatua gelditu da aurten. Mutikoek ostiraletan, 20:00etan entsaiatzen dute, astero.**



**Neska gaztetxoaren taldea da talderik egonkorrena. Orain 12 neskatik gora daude eta larunbat goizetan entsaiatzen dute.**



**Aurten hasiberri gaztetxoaren taldea osatu da. 13 Neska mutiko daude eta ostiraletan 19:00etan entsaiatzen dute.**



# Kiru Muntaiak

**Blas Elizburu Kortabarría**  
Sukalde, enpotratu eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Errekaldia, 30  
Tfnoa 943 75 13 12  
Eskuko tfnoa 670 05 18 20



# Etxabe Harategia

Euskal txahalkia-Bildotsa

**Merkatu Plaza  
6-7 Postuak  
Telef. 943752375**

# 12.000 euro Egunkariarendako!

“Egunkari barrixa etaratzeko 12.000 euro batzia lortuko dogu”

Joan zen larunbatean, Abadetxe-ko Kapillan egin zen, Egunkariaren Berria Berri kanpainaren aurkezpena herrian. Egunkariako langileen ordezkari modura etorri zen Igor Sotoa Elgoibartarrak, ekainaren 13an Egunkari berria kalean izango dela eta lehen baino indar handiagoz aurrera egiteko gogoz daudela adierazi zuen. Era berean, Egunkari berria ateratzea posible izan dadin batu beharreko diru kopuruaren berri ere eman zuen; 5.000.000 euro. Diru kopuru hau biltzeko, Egunkari-ko langileek 50 eta 300 euroko akzioak jarri dituzte salagai.

Soraluzeko Herri Batzordearen izenean Egoitz Unamunok hartu zuen hitza eta 12.000 euro biltzeko helburua lortzeko egingo diren ekimenen berri eman zuen. Elkarre, alderdi, denda, enpresa eta soraluzetar guztien laguntza beharko dela adierazi zuen, pozgarriena “soraluzetarron gehiengo zabal bat euskarazko Egunkari berri bat sortzen laguntzeko prest” dagoela dela esanaz. Denon artean lortuko dugu!



Egunkariako langileen eta Soraluzeko Herri Batzordearen ordezkaria aurkezpenean.

**SORALUZEN 12.000 EURO BATU ETA EGUNKARIKO HARPIDEDUN BERRIAK HERRI BATZORDEAK EGINGO DITUEN EKIMENAK**

**ORAINARTE SORALUZEEK LORTUTAKO LAGUNTZA**  
1.700 euro

**AKZIO SALMENTA**

50euroko 10 bono: 500 euro  
300 euroko 3 bono: 900 euro  
Guztira: 1.400 euro

**Saldu beharrekoak:**

50 euroko 30 akzio: 1.500 eur.  
300 euroko 35 akzio: 10.500 e

**KAMISETA**

30 Kamiseta saldu dira  
300 euro

**HARPIDEDUNAK:** 13  
lortu beharrekoak : 70

*Egunkaria aurrera!*

**PIL -PILEAN ELKARTEAN**  
akzio eta materia-

la erosteko aukera dago. Bertara joan edo 943751304 telefonora deituta.

50, 300 eta 5 euroko akzioak daude. Kamisetak, pin-ak eta harpidetza orriak ere bai.

**AKZIO ETA MATERIAL SALMENTA-**

- Tabernetan pin-ak eta 5 euroko bonoak.
- Larunbatero, akzio eta kamisetak saltzeko mahaia zubian.
- Herriko denda eta komertzioetan ere salgai jarriko dira

**EKAINAREN 4AN** Termometro erradoia jarriko da zubian eta Egunkariaren bideoa eskeiniko da Gaztetxean (19:30etan). Grafiti bat ere egingo da zubiko

**EKAINAREN 7AN**

Euskal Jaian 5 euroko bono laguntzen salmenta masiboa egingo da.

**EKAINAREN 9tik** 13ra enpresa eta langileengana joko da akzioak saltzen.

**EKAINAREN amaiera** aldera. Euskerazko zine emanaldi bat ere eskeiniko da Kiroldegian. Batutako dirua Egunkariarendako izango da.

## Instalaciones Kalebarren S.L.



GAS INSTALAKUNTZAK  
ETA PROIEKTUAK  
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA  
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92  
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

## JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KOL

**HORTZ  
KLINIKA**

MEDIKU ESTOMATOLOGOA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

# Bergarako Orkestra bihar kiroldegian

Datorren larunbatean, Bergarako Orkestra Sinfonikoak, "Eraztunen gizonaren" ("El Señor de los Añillos") dantza eta musika ikuskizuna eskeiniko du Soraluzeko Kiroldegiko frontoian. Soraluzeko Musika Eskolak, matrikulazio kanpainaren barruan antolatutako emaldia izango da. Ikuskizuna gaueko 22:00etan hasiko da eta ordu ta laurden inguruko iraupena izango du. Guztira 70 musikari eta 16 dantzarik hartzen dute parte. Musikarrietako 10 soraluzetarrak (batzuk Bergaran bizi direnak) dira. Enrike Txurruka soraluzetarra aspalditik da Bergarako Orkestako kide eta berak eman digu ikuskizunaren nondik norakoen berri.

## Zer ikusiko dogu larunbateko ikuskizunian?

Bergarako Orkestra Sinfonikoak eta Xamatx dantza taldiak elkarlanian prestatutako ikuskizun bat. Ikuskizunak bi zati izango ditu. Lehenenguan, orkestra klasikorako errepertorixua joko dogu. Obra ezagunak dira, gari ezberdinetakak eta entzuteko oso errezak. Biga-



rren zatixan, gaur egungo musikia joko dogu. "Lord of the Rings" pelikulako soinu banda entzun ahal izango da. Gainera, dantza eta antzerki pixkat be egongo da.

## Ikuskizunian plazentziarrak be parte hartzen dabe.

Bai, askok gainera. Nagore Sanz (kontrabajua), Dometx Uzin (biolina), Ana Txurruka (biola), Eduardo Txurruka (biolina), Enrike Txurruka (perkusioa), Zigor Martinez (klarinetea), Jaio Manzanedo (flautia), Nagore eta Eduardok bakarlari moduan be jardungo dabe. Dometxek lan berezi bat be egiten dau. Iñigo Alberdi be ibili zan.

## Zela sortu zan horrelako emankizun bat sortzeko ideia?

Noizik behinian, kontzertu klasikue-tatik pixkat urten eta beste musika era batzuk jorratzen dittugu orkestan. Musikaletan parte hartu izan dogu ("Miresableak"), soinu banda barrixak sarri joten dittugu eta bakarlari ezagunekin be jo dogu (Benito Lertxundi eta Golden Apple Quartet). Bergako aratustetako kontzerturako beti egiten dogu zeoze barrixa eta aurten "Lord of the Rings" egin dogu. Jentiarri gustatu egin jako eta Plazentzian berriz egitteko eskatu doskue.

# Musika eskola matrikulazio epea zabalik ekainean



Soraluzeko Musika Eskolan, 2003-2004 ikasturterako izena emateko epea zabalik dago ekainaren 13rarte. Aurten ere, eskaintza zabala da Musika Eskolak eskaintzen duena; biolina, gitarra, saxofoia, txirula, txistua eta tanborila, soinu eta panderoa, bajua, tronpeta eta tronboia, pianoa eta gitarra elektrikoa. Honetaz gain, solfeo eskolak eta gaztetxo eta hasi berriendako musika klaseak ere ematen dira. Izen-ematea sustatzeko, musika eskolak hainbat ekimen antolatu ditu matrikulazio kanpainaren barruan.

## Bolia taberna

Etxaburueta  
Tel.: 943 75 11 04  
20590 Soraluze



## IÑAKI IÑARRA

HARATEGI ETA  
URDATEGIA

Kalebarren 29  
Tfnoa 943 75 12 49  
Soraluze

## Futbola

## Soraluze F.T.ren 25. urteurreneko egitarau zabala



Soraluze F.T.ren 25. urteurrena dela-eta, taldeko zuzendaritzak egitarau zabal bat aurkeztu du ostegunean Udaletxean egindako aurkezpenean. Gainera, klubaren historia eta taldea sortu zenetik gaur arte izan diren talde guztien argazkiak biltzen dituen aldizkari bat ere kaleratuko dute:

**Ekainaren 5, osteguna**

19:30etan **HITZALDIA**: “Soraluze Futbol Taldearen 25 urteak” Polikiroldegiko erakusketa gelan.

Partehartzaileak: J.L. Larrañaga, P. Prieto, J. M. Arruabarrena, J. Rascon

Moderatzailea: B. Treviño.

**Ekainaren 7, larunbata**

17:00 etan EZOZIKO ZELAIAN

Jokalari ohien partidua: “Soraluze –Erreal”

Partiduaeren hasieran, 25 urte hauetan lehendakariak izan direnei omenaldia egingo zaie.

**Ekainaren 10ean, asteartea**

19:30 etan **HITZALDIA**: “Gipuzkoan gaur egun erabiltzen den futbol eredu” polikiroldegiko erakusketa gelan. **Partehartzaileak**: Gipuzkoako Futbol Federakuntza. Gipuzkoako Diputazioa, Erreal (Roberto Olabe), Eibar (Jabi Perez), Soraluze. **Moderatzailea**: Iñaki de Múgica

**Ekainaren 12an, osteguna**

19:30 etan “Soraluzeko ohizko Batzarra” (2002-2003 denboraldia)

**Ekainaren 14an, larunbata**

11:30 etan NESKEN FUTBOLA

Infantil maila, herriko frontoian.

Euskadiko Aretoko Futbol Selekzioa. Bilboko Athletic taldea eta Eibartarrak F.T.

14:30 etan “Herri-Bazkaria” Kiroldegian.

**Ekainaren 4tik 30era** “Argazki erakusketa”

Kiroldegiko erakusketa gelan.

## Kadeteak 2. kopan



Kadeteak 2. gelditu dira kopa txapelketan Idiazabalen Martuteneren aurka galdu eta gero. Zorionak!

## Realzale eta Athleticzaleak 4nako berdinketa Ezozin



Athletic-zale eta Realzaleek Ezozin jokatu zuten partiduan 4nako berdinketa izan zen. “Egunkaria Aurrera” kartelak eskutan eman zitzaion hasiera.

## Izugarrizko jendetza Txuri-Urdinak-en aurkezpenean



Maiatzaren 19an egin zen Txuri-Urdinak peñaren aurkezpenean. Valeri Carpin errealeko jokalaria izan zen herrian eta izugarrizko jendetza erakarri zuen aurkezpenean.

## Pelota

## Herriartekoan

## Azkoitiren kontra 6-0

Soraluzeko pelotariak amaitu dituzte aurtengo Herri Arteko Txapelketako kontuak. Lehen kanporaketan Azkoitiaren kontra jokatu beharreko joaneko eta bueltako 6 partidua galdu ostean txapelketatik kanpo dago Soraluze.

## Judo

## Unai Soraluze 2. Andorran

Unai Soraluze Judoka gazteak 2. postua eskuratzea lortu zuen, joan zen asteburuan Andorran jokatu zen printzerriko txapelketan. Zorionak!

# Andoni Calles Corchero

*Nere lehengusu Oskar ezingo dot sekula ahaztu*

Mutil mendizale ta kirolarixa izan arren, oinguan kalia harrapau dogu Andoni bueltatxo bat emoten. Itxura danez (oraindik ez da segurua) soraluzetar bat izango dogu Basetxea, telebistako saio ezagunean, eta argi dago mutil honek maila altuan lagako dabela herrixan izena. Lagunen lagun, garai gogorak pasatu dittuan arren beti dauka irrifarria ahuan eta nahikua umore inguruko danak alaitzeko.

## Izen abizenak, edadia ta lanbidia.

Andoni Calles Corchero, 27 urte ta mekanikua.

## Bapo geratzeko moduko menua.

Pastia, arraina ta maiukixak natiakin. Edateko ardaa.

## Animalixa, tokixa, zenbakixa ta koloria.

Txakurra, Karakate, 7xa eta beltza

## Ze gustatzen jatzu egittia zure denbora librian?

Mendixan ibiltzia, snow egittia, pelotako kirol danetan aritzia... parrandan ibiltzia be bai.

## Zu pelotan urte askotan ibili zarala, zein da gogokuen dozun pelotarixa?

Julian Retegi.

## Sekula ahaztu bihar ez dozun zeozer?

Nere lehengusu Oskar ezingo dot inoiz ahaztu.

## Udia gertu daguala, planik ba al daukazu?

Basetxera juateko asmua daukat ta pre-parau egin biharko naiz kastingetarako.

## Zu zeu alkatia izanda, zer egingo zenduke herrixan?

Polikiroldegixa konponduko neban, biharra dao ta.

## Zelan ikusten dozu Soraluzeko girua?

Nik uste dot asko hobetu dala. Oin lehen baino jende gehixao geratzen da herrixan eta giro ona sortzen da.

## Txoritxo batek kontatu dosku musika munduan zabizela...

Ekainan 27xan RKZULOn aurkezpen jaialdixa izango da Gaztetxian. Lagun batzuk taldia osatu eta abesti batzuk prestatzen dihardugu egun horretarako,



## Bertso Begiz

*Andoni Calles mekanikua  
mutil jatorra da baina,  
RK-Zulo pelota eta  
oin basetxeko kasting-a.  
Aupa ba hi zorte on!  
danei egurra emon!  
eta zaindik imagina,  
hola gerora ligauko juek  
kuadrilakuak hik haina.*

*Etxebarri*

*(Doinua: Iparragirre abila dela)*

## Andoni Calles Corchero

gure lehen saiaua izango da eta. Hemendik soraluzetar danak animatzen dittu jaialdira, sekulako girua egongo da ta.

**Gonbidapena eginda dago. Halan da be, mutil alai honi txisteren bat**

**kontatzeko be eskatu dotsagu, baina, gizurra emoten daben arren, ez jako bat be burura etorri eta gogukin laga gaitu.**

**Hurrengo baten izan biharko dau. Zorte on Andoni eta telebistan gogoratu gurekin!**

## JABIER ALBERDI

HARATEGI  
ARTISAU ERARA  
ESPEZIALIZATUA

KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN  
PRODUKTUETAN.



Errebal kalea 24  
Tfnoa 943 75 19 32

## Mendata taberna



**Berezitasunak:**  
**Txipiroiak, Barazki**  
**Menestra, Gixauak...**  
**Asteburuan plater**  
**konbinatuak**  
**Enkarguak etxerako**  
**( bazkariak eta afariak )**

Kalebarren, 5  
Tfnoa 943 75 13 87

Lehiaketa

# Zein da argazkixan agertzen dan basarrixa?

## Deittu!!!



Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!

## Deitu 943 75 13 04ra

Aurreko irabazlea: Beatriz Goenaga  
Erantzuna: Legarda

**Juan Mari**  
*Arraindegia*

*Eguneroko  
arraina  
eta konjelatuak*

Merkatu Plaza  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 24 40  
Partikularra 943 74 03 69



**Hnos. BENITO**  
**ANAIAK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

**EROSLE**


Kontsumo kooperatiba

Tel.: 943 75 13 45

Argitalpen honen laguntzaile



**kutxa**  
zuri esker



# Ugaraxo



2.003ko maiatza 16. alea Plaentxi H. I. eta Pil-pilean aldizkarixa elkarlanian  
**Aldizkari honek udalaren dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko**

## Zubi-Transbordadore zaharrena ezagutzera gonbidatzen zaitugu



Maiatzaren 16an, ikastetxeko 5. eta 6. mailakook Portugaleteko Zubia ezagutzera joan ginen. Euripean ibili arren, ez ginen beldurtu 50 metrotara dagoen zubitik, Nerbioi ibaia zeharkatzeko, beno, gutxi batzuk urduri samar jarri ziren eta behetik ikus-tea nahiago izan zuten.

Bertan zegoen gidariak, primeran azaldu zizkigun Zubiaren nondik norakoak:

Ibaiaren bi aldeak lotzeko beharra sortu zen, baina, Bilboko Porturantz abiatzen ziren itsasontzi handiko mastek ohiko zubi bat egitea galarazten zioten. Hori dela eta, egilearen irudimena piztu zen eta bi ertzen arteko 160 metrotako desafio egiten, izugarriko zubia egin zen.

Proiektua, 1888koa da eta Ferdinand Arnodin, Eiffel Dorrearen egin zuenaren ikaslearena da. 1893ko uztailaren 28an

inauguratu zen, hortik aurrera, munduko hainbat lekutan halako zubiak eraikitzen hasi zirelarik.

Hara igotzeko, igogailu panoramiko modernoak daude.

Zubiaren azpian, eta trena izango balitz bezala, 18 kabletatik eskegita eta airean, ibilgailuz eta bidaiariz beteta, ontzitxoak pasatzen da. Ontzitxoak 22tona pisatzen du hutsik eta bidaiariz beteta, 50 tona.

1893tik aurrera, 650 milioi pertsonak gurutzatu dute itsasadarra ontzitxoan. Ontzitxoak ibilitakoa Lurrera 31 bira ematea beste izango litzateke.

**ZUBIRA IGOTZEA PENTSATZEN BADU-ZU, EZ BOTA TXISTURIK. EZ DUTE LAGATZEN ETA!!!**

## Guggenheim

Plaentxiko  
ikasleak arte  
abstraktoaren  
ikusle

Goiko argazkiari begiratuta, maiatzaren 16an, 5. eta 6. mailako ikasleok non egon ginen asmatuko zenuen onezgero, ez da?

Ba, bai, Bilboko Guggenheim museo ospetsua bisitatzeko aukera paregabea izan genuen.

Beste batzuen artean, Alexander Calder eskulto-

rearen 65 obra ikusi genituen. Hauek, mugimenduan eta oreka mantenduz, zintzilika kokaturik dauden irudi geometrikoak dira.

Baina, zein inpresio ekarri zuten Plaentxiko ikas-kideek han ikusitakoari buruz?

Hona hemen erantzunak:

### 1. Zer gustatu zitzaizun gehiago, kanpoan ikusitakoa edo barrukoa?

- Kanpokoa % 52
- Barrukoa % 25
- Biak % 23

### 2. Orokorrean, gustatu al zitzaizkizun bertan ikusitako arte lanak?

- Bai % 83
- Ez % 17

### 3. Ikusitako lan guztietatik; zein aukeratuko zenuke?

- Kanpoan dagoen txakurra.
- Txakur urdina.
- Kanpoan botatzen duten lurrina.
- Burdinazko tren.
- Makurtuta zegoen neskaren koadroa.
- Calderren mobilak.

### 4. Deskribatu hitz batez bisitaldia.

- 12 lagunentzako, interesgarria.
- 11 " , polita.
- 7 " , aspergarriak.
- 7 " , dibertigarria.
- 2 " , bitxia.
- 1 " , oso modernoa.



Erantzunak ikusirik, era guztietako iritziak daudela esan dezakegu. Hala ere, bistan dago, gehiengo handi bat gustura gelditu zela ikusitakoarekin.



**JULIA PEREZ**  
8 URTE

Barregarriak dirala. Neri pixkat gustatzen jata. Gaizki iruditzen jata jentia hiltzia. Gaizki iruditzen jata batzuetan itxi egiten dituztelako lekuak.



**JEFRY CID**  
12 URTE

Oso garrantzitsuak dira. Asko esaten dabe baina ez dabe ezer egiten. Neretako Aznar eta Bush berdinak dira.



**MAITE RUIZ**  
8 URTE

Neri ez jata gustatzen egiten dabena. Gaizki portatzen dirala jentia-kin. Hona etortzen diranian jaten hasten da.



**LEO ZAROBÉ**  
11 URTE

Rollo bat da. Ez dot ezer ulertzen. Ez jata gustatzen dana diruagatik egiten dabelako. Txarrena da oindio ezin dotela boturik emon.



## Ikusi Makusi Zein Ikusi?



**Zein da alboko argazkian agertzen dan andre-  
reñua ?**

Zein dan baldin badakizu,  
**DEITU**

**943 75 13 04 (Pil Pilean) telefonora**  
eta emon zure erantzuna. Emon zure izen abi-  
zen eta telefonua.

Asmatu ezkerro **denborapasako aldizkari edar  
bat** irabazi ahal izango dozu.  
Aurreko aleko irabazliak: Lore Gallastegi eta  
Janire Moreno.

**Erantzuna: Jose Tardio**  
**Saria IRATXO Goxodendan eskatu**

## EsaiXozu... (amodiozko, zorion agurrezko... mezuak)

Bartzelona eta Erreala dira ekiporik onenak, 6.B moduan (Iñigo G., Jeffry eta Leo). Aupa Erreala, Kovacevic, Karpin eta Nihat! Eta Bartzelona. Aupa 6.B, onenak, majuenak eta listuenak gara! (Gaizka S., Oier L., Asier I. eta Iñigo G.). Aupa Erreala!, ligia irabazi bihar dau! (Marta, Ixone eta Mireia). Aupa Erreala eta S.B. Bea etxekolan gutxiao bial-



du (J. Laskurain). Frontoiko sarea jartzia eta "U" bat mese-  
dez! (Leo Z. eta Jonathan Prol). Futboleko 6.B onenak dira. 6.Bko neskak gara onenak (Iñigo G., Asier, Gaizka...). Egunkaria aurrera! (Asier I., Gaizka S. eta Iñigo G.). Guk abestiak kantatzen ditugu. Trialala trialala! (4. Maila A.).

# Ezkarrilketa

Eibar taldean jokatzen dabena Gaizka, Leo eta Iñigoren amets borobilak.

Eibar taldean jokatzen duten hiru futbolariekin egon gara oraingoan. Mundua oinazpian dutela, Eibarren jokatzeko euren bizitzan izan duen eraginaren berri eman digute. Harroxka xamar daude, amets handiak dituzte eta ahal dutenean erakustaldiren bat egiten dute jendaurrean baloiarekin. Futbolean ez dakigu baina lagun moduan, bikainak dira.

**- Eibarren zabizte, baina jokatzen dozue bape?**

**Gaizka:** Bai, bastante jokatzen dogu.

**Iñigo:** Bai, asko.

**Leo:** Bai, asko.

**- Ze postutan jokatzen dozue?**

**Golik sartu dozue?**

**G:** Erdilari gehixenbat baina lateral eta eskumako erdilari be jokatzen dot. Aurten 2 gol sartu dittut.

**I:** Aurrelari jokatzen dot batzutan. Golik ez dot sartu.

**L:** Eskumako erdilari, atzelari, zelai erdiko erdilari edo aurrelari. Aurten 5 gol sartu dittut.

**- Eibarren jokatzen dozuenetik harruaguak zaretela diñue zuen lagunak?**

**G:** Ez dot uste baina ez dakit.

**I:** Gaizkan lagunak igual esango dabe baina neriak ez.

**L:** Ez dot uste hori esaten dabenik.

**- Eibarren zabiztenetik gehixao ligatzen dozue?**

**G:** Antzera xamar, bapez.



**I:** Ez, zoritxarrez ez.

**L:** Ez. Igual denboriakin.

**- Baloia borobila bada, zegaittik da karratua atia?**

**G:** Baloia hobeto sartzeko.

**I:** Atia borobila balitz atezainak baloi danak geldittuko littuzkelako.

**L:** Baloia jolasteko dalako da borobila.

**- Ze taldetako zaliak zarete?**

**G:** Errealekuak.

**I:** Bartzelona.

**L:** Bartzelona.


**- Zein da zuen ametsa futbolian?**

**G:** Realian edo Manchesterren jokatzia.

**I:** Bartzelonan jokatzia.

**L:** Bartzelonan, Manchester edo Realian jokatzia.

**- Zorte on!**



Euskaldunagoa?  
Oso zaila dago.

Independenteagoa?  
Ez da erraza.

Pluralagoa?  
Zein bezain plurala?

Hobea?  
Hoberena zen.

baina  
**hobetuko  
dugu**  
zure laguntzarekin

**berria berri**

Akzioei buruzko informazioa:  
[www.ektsa.net](http://www.ektsa.net)  
Tf: 635 733 385 · 635 733 386



## Elgoibarko Institutua

San Roke, 1 Arregitorre, 2

Tel.: 943 74 80 19

E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net



# ELGOIBARKO INSTITUTUA 2003-2004 ikasturtea

### LANBIDE HEZIKETAKO HEZKUNTZA ZIKLOAK

ERDI MAILAKO ZIKLOAK: TEKNIKARIA

- Elektromekanika (Automozioa, 2.000 ordu)
- Karrozeria (Automozioa, 2.000 ordu)
- Merkataritza ( 1.400 ordu)
- Erizaintza laguntza osagarriak ( 1.400 ordu)

GOI MAILAKO ZIKLOAK: GOI TEKNIKARIA

- Automozioa ■ Administrarritza eta finantzak
- Ingurugiro osasuna

*zatoz  
elgoibarko  
institutura*

## HEZKUNTZA ZIKLOETARAKO AURREMATRIKULA: ekainaren 2tik 10era

**Azpiegitura teknologiko aurreratuen**, 80 ikasgairen eskaintza, **lan praktikak Europan**, Irakasle lizentziatu, ingeniari edo diplomatuak, ISO 9002 kalitate ziurtagiria, prozedura garden eta kontrolatuak, lan munduan sartzeko emaitza ezin hobek



### INFORMAZIOA:

## Makina Erremintaren Institutua

Azkue Auzoa, 1 - 20870 Elgoibar

Telf. 943 74 82 65 - 74 41 32

Faxa. 943 74 41 53

email: amaia@fmh.es

www.imh.es



2003 - 2004 IKASTURTEA

## HEZIKETA ZIKLOAK

GOI MAILA (A eta D ereduak)

- Proiektu Mekanikoen Garapena
- Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- Industri Ekipoen Mantenimendua

ERDI MAILA (A eta D ereduak)

- Mekanizazioa

### ATE IREKIAK :

ekainaren 5ean, arratsaldeko 19etan



**egun enpresak langile tekniko kualifikatuen  
beharren aurkitzen dira**



**Izena emateko epea: ekainaren 2tik 11ra, biak barne**